

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Eleberrri baten irakurketan, hipotesien formulazioaren bidez modu aktiboan inplikatur, helburuaren baitako informazioa inferitu, eta testuaren esanahia norbere esperientziaren testuingurura ekarri.	<p>1.1. Emandako informazioaren baitan eskatutako hipotesi justifikatuak egiten ditu.</p> <p>1.2. Hipotesiak egin ahal izateko emandako informazioa ulertzen eta barneratzen du.</p>
2. Gai jakin bati lotutako enuntziatueta zein proposatutako berridazketetan, esandakoarekiko igorleak adierazten duen jarrera islatzeko hizkuntza baliabideak zuzen eta egoki aplikatu: iritzia edo ustea adierazteko baliabideak eta zalantza adieraztekoak, kausa-ondorio erlazioa dutenak, baldintza-ondorio erlazioa dutenak.	<p>2.1. Iritzia emateko esapideak txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.2. Ziurtasuna eta zalantza adierazteko egiturak txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.3. Aditzak zuzen jokatzeko indikatiboko geroaldian, ahalerako geroaldian eta baldintza hipotetikoan.</p> <p>2.4. Kausa-ondorio erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p> <p>2.5. Aurkaritza erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan txertatzen.</p> <p>2.6. Baldintza-ondorio erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p>
3. Ahozko tertulia literarioa eraiki helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	<p>3.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du.</p> <p>3.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.</p> <p>3.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz.</p> <p>3.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.</p>
4. Informazio soila adierazten duten enuntziatuak balorazio enuntziatu bilakatu zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiliz.	<p>4.1. Balorazioa adierazten duten esaldiak idazten/esaten ditu.</p> <p>4.2. Idazten/esaten dituen esaldiak zentzuzkoak dira, koherentzia semantikoa dago adjektiboen eta gainerako esaldiaren artean.</p> <p>4.3. Adjektiboak esaldiak eskatutako deklinabide kasuetan zuzen idazten/esaten ditu.</p>
5. Ohar kritikoaren atalak ikasi, barneratu eta horiek baliatuz landutako irakurgaiaren inguruko ohar kritikoak idatzi.	<p>5.1. Ohar kritiko baten atalak bereizten ditu.</p> <p>5.2. Esaldiak osatzen ditu ideiak behar den bezala lotuz; kausa-ondorio harremanak, aurkaritza harremanak... zuzen adieraziz.</p> <p>5.3. Ortografia eta deklinabidea berrikusten ditu entregatu aurretik eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
6. Irakurritako liburu baten inguruko ohar kritikoak egin ahal izateko baliabideak eskuratu, barneratu eta aplikatu.	<p>6.1. Kontrol-zerrenda baliatuz ohar kritikoaren egituraren atalak eta haien ordena egokia bermatzen ditu.</p> <p>6.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko datu bibliografikoaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.3. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren edukia atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.4. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren balorazioaren atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p>
7. Ohar kritikoak berrikusteko kontrol-zerrenda norbere ohar kritikoaren zein emanikoen berrikusketan aplikatu.	<p>7.1. Kontrol-zerrendan adostutako urratsak norbere ohar kritikoak berrikustean aplikatzen ditu.</p>
8. Bizipenak modu egokian kudeatu eta irakurritako liburu batean gertatzen direnekin alderatu.	<p>8.1. Bizipenak egoki adierazten ditu eta besteekin alderatzen ditu enpatia erakutsiz.</p>
9. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>9.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>9.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>